

GEHIGARRIA ISAAC LOIOLARI ELKARRIZKETA
KULTURA "ELGOIBAR HERRIA" INSTRUMENTU TALDEEN LEHIAKETAKO EMAITZAK

BARREREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko apirilaren 2a/XI. urtea/483. zkia

ESTREINALDIA GAUR HERRIKO ANTZOKIAN

Elgoibarko Perkusio Taldea



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Kotxerako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



Kerik gabe

Imajina dezakezue mundua zigarro-kerik gabe? Ba, horren atzetik dabilta Irlandan: kerik gabeko tabernak, zigarrorik gabeko lagunarteak. Erretzaileen etsipenerako, Irlandako pubetan ezingo da garagardo baten inguruan, solasaldi motel eta lausoa eduki. Nikotina premia izanez gero, taberna zulutik irten, eta kale gorrian erre beharko dute. Ez dut esango neurria xeble samarra ez denik, zalaparta eragiten duten horietakoa. Hasieran tabernak eta jatetxeek lege berri horren aurkako jarrera agertu zuten, baina azkenean, amore eman behar izan dute. Isunak ez dira nolanhikoak, 1900 euroko zigorra ere ezarri diozaiokete tabernari bati ez badu bere lokalean legea betearazten. Ez da txantxa, ez. Leku publikoen ondotik, lantegiak etorriko dira gero, eta laster, nork bere etxean ere ezingo du erre, ondokoaren birikei kalte egitea egotziko diotelako. Nik, orain dela 4 urte utzi nion erretzeari, eta argi daukat sekulako mesedea egin niola neure buruari. Egunetik egunera, gero eta komentzituago nago horretaz. Jatetxe batera afaltzera joaten naizenean, edo taberna batean pintxo bat jaten nagoela, ondokoa kea botatzen aritzeak ez dit graziarik egiten. Egia esan behar badut, tabako beltzak eta purek molestatu egiten didate, areago, gonbitolarria eragiten didate (erretzeari uzteak sortzen dituen efektuak). Baina ez naiz ausartzen inori esaten kanpora atera dadila erretzera, edo beste alde batera bota dezala kea. Hori erretzaileak berak egin beharko lukeen zerbait da. Erretzailea bera konturatu beharko litzateke ondokoari kalte egin diezaiokeela. Ez nago debekuen alde, badakigu debekuek kontrako efektua sorrarazten dutela. Horregatik, debekuen eromenean erori aurretik, autokritika apur bat egin beharko genuke guztiok. Eta lehendabizi, erretzaileek.

Ainhoa Lodoso



Euskara, jalgi hadi Arabako plazara

Joan den ostiralean Seguran izan nintzen. Asmoa Iparra-Hegoa taldeak antolatutako Arabako euskararen gaineko mahai-inguru baten berri jasotzea zen. Bihurgunez beteriko bidea egin nuen, eta Segura Euskal Herriko txokorik urrunena iruditu zitzaidan. Iritsi nintzen halako batean. Grabagailua eskuan eta koaderno bat besapean. Ezbairik gabe, itxurak salatu ninduen. Neska ilehori bat Iparraldeko hizkeraz mintzatu zitzaidan. Bat-batean, oharkabean ia, lagun talde baten erdian nengoen, euskal giroko taberna batean, mahai-inguruaren nondik norakoak prestatzen.

Hitzaldiaren gaineko artikulua bat egin behar nuela esan nien. Artea ez zekiten euskararen inguruan lanean aritzen naizenik, eta haien interesak, arretak, bereziki harritu ninduen; hamar minuturen buruan liluratu.

Sartu ginen Kultur Etxera, bost hizlari, antolatzaile bi, hogeit hamar berri eta ni. Moderatzaileak hartu zuen hitza. Kontua hau zen: Arabako Errioxan euskarak duen egoeraren berri ematea. Oiongoak, La Puebla de Labarcakoak eta Añanakoak ziren egoeraren analisisia egin zutenak. Ikastola bateko zuzendaria bat, apaiz euskaltzalea bestea... Batek eta bestek muturreko egoera baten berri ekarri zuten Segurara: euskara bakartuta dago Arabako Errioxan.

Kazetari sena ia ahazturik, hizkuntzalariarenak gain hartuta, hunkituta nengoen. Amaieran, moderatzaileak, Arabako euskarari duen balioa aitortu nahian edo, antzinako zenbait euskarazko dokumentu arabar jatorrikoak direla esan zuen. Bidea baino gogoia indartsuago dela aldarrikatu zuen, eta horri eutsi behar diogula, euskara biziko bada.

Egoeraren larriaz ohartuta edo, entzundako hitzek hunkituta, taldekoei gutun bat igortzea pentsatu nuen. Besterik ezean, haien hitza ahalbait zintzoena jasotzen saiatuko naizela esateko eta hitzaldian jasotakoa ez dela "beste artikulua bat" egiteko bakarrik izango. Itzulerako bidea motzagoa izan zen eta Segura Euskal Herriko txoko maitagarria iruditu zitzaidan. Artikuluak, ezinbestean, "Euskara, jalgi hadi Arabako plazara" izango du goiburua.

Ainhoa Lendinez

Kexak	5
motz Motz	8
gehigarria	13
kiROLak	20

Oharra

Datorren barixakuan, apirilaren 9an, ez dugu BARREN kaleratuko. Beraz, Ostiral Santuan ez duzue astekaria jasoko baina hilaren 25ean berriro ere zuen etxeetan izango gaituzue. Datorren astean BARREN itxita egongo denez, buzoian laga ditzakezue gauzak edota e-posta erabili: barren@topagunea.com. Ondo ibili Aste Santuan!

GIZON ALA GIZONTXO? IKUSIKOU!

Orain dela 28 urte inguru San Migelen auzoko gazte batzuk soziedade bat sortu zuten "Kalamua" eskola izandako lokalean, noski, sasoi hartan normala zen bezala, mutilak bakarrik.

Gaur egun, berritxu eta handitxu ein dabe, horregaitxik sozio berriak sartzeko aukera dago. Nere etxian gizonezkorik ez dagoenez, neuk izena ematia pentsau dot, nahiz eta neska izan. Esan didatenez, estatutoek eskatzen daben betebeharrak bakarrik "auzotarra" izatea da, ez gizonezkoa, ez auzotar ona, ez beste meritorik, bakarrik "auzotarra", eta ni banaiz.

Nire lagunek argi ibiltzeko esan didate, oraindik gizonak gizontxo direla, baina nik ez dot uste inolako trabarik ipiniko didatenik sartzeko, bazkide asko nire senideak baitira, asko dira alabak dituztenak, beste batzuk auzotarrak ez zirenak baina auzora bizitzera etorri direlako eta emaztea auzotarra dutelako sozio onartuak. Beste asko gazteak dira, berdintasunean hezitakoak. San Roke eta San Lorentzon emakumeak sozio dira. 2004. urtean gaude, eta guzti hau gutxi balitz, gure auzoa Euskal Herrian dago, non gure Lehendakariak dioen emakumearen berdintasuna dela lehentasunik garrantzitsuenak.

Horra, nire auzotarrek hortaz zer pentsatzen duten jakiteko aukera edarra, ez uste? Bi aste barru ikusikou!

K. L.
15343784

MANU ALVAREZ GOGOAN

Nire lagunaren senarra izan zinen,
Eta nire senarraren laguna
Lehenengo laguna izan zinen
Eta gero senar eta aita.
Txoko horietan falta egingo zara
Baina gure bihotzetan
Beti egongo zara.
Benetan maite zaituztenen laguna,
senarra eta aita izaten jarraituko duzu.

Marian

Urruzunoren begi ezkutua

Hitzak II




Hitzek, esan behar direnean barruan gelditzen badira, barrenak ustel dakizkigukete. Gure baitan erre daitezke mututasuna sortuz. Eta nik ez dizut hitz txarrik esan nahi, nik, nik hitza erabili gura nuke edozeinek entzungo balit. Nik hitza darabilt zuretzako; entzutea gogoko duen edozeinentzako. Zuzena izan nahi nuke diodanean eta ekintzetan, baina batzutan, gehiegixotan, ia beti, naizela uste dudana (edo besteek uste duten) pertsona hori izan ezik, beste edozein naizela iruditzen zait. Hitzez deskriba ezin dezakedan norbait.

Unai Villena

ASTEKARIA Barren

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Geru Koop. E. TIRADA 4.175 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK

◆ Pedro Muguruza Etorbideko bizilagun batek esan digunez, **kalearen amaieran ez dago plastikoa birziklatzeko kontenedorerik**: “Pedro Muguruza Etorbideko kale amaieran ez dago plastikoa birziklatzeko kontenedorerik, eta dauden kontedoreak oso banatuta daude; zaborrena alde batetik, kristalarena beste batetik... Lan zaila da zaborra banatzen ibiltzea, baina gainera, ez badaukagu gero zabor hori bere lekura botatzeko aukerarik, alferrikako lana egitea da”.

◆ Urasandiko bizilagun batek esan digunez, **auzoko espaloiak zaharkitua daude, eta euria egiten duenean oso labainkorrak dira**: “Urasandi auzoan aldapa handiak daude zenbait tokitan, eta euria egiten duenean espaloiak oso labainak jartzen dira. Kontu handiz jaitsi behar izaten da, eta hala ere, bat baino gehiago erori izan da. Herri Eskolatik beherako aldapa hori da okerrenetarikoa. Espaloiak beste materialen batez egitea izan daiteke aukera bat, edo bestela gainetik gutxiago irristatzeko zerbait botatzea”.




◆ Gazte koadrila bat etorri zaigu Barrenera, **Elgoibarren komun publiko gutxi daudela esanez**: “Komun publiko gutxi dago Elgoibarren, eta dauden apurrak, askotan itxita egoten dira. Leku Ederrekoak gehienetan itxita aurkitzen ditugu, eta Merkatu Plaza azpikoak egoera kaxkarrean daude. Madalako komunak berriz ireki behar direla uste dugu. San Lorentzon jarri dituzten komunak oso ondo daude. Modu horretako beste batzuk jarri beharko lituzkete herrian”.

GALDERAK

◆ **Udalak ba al dauka Arrantzaleen Pasealekuan barandilak jartzeko asmorik?** Emakume batek galdera hau luzatu digu, izan ere, oso arriskutsua baita pasealeku horretan ibiltzea, umeentzat batez ere. Nahikoa da bultzakada bat ematea, uretara erori eta ezbeharren bat gertatzeko. Udalera deitu dugu, eta esan digutenez, obra hori Eusko Jaurlaritzaren kontua da, eta toki arriskutsuenetan jarriko dituzte barandilak, baina ez digute zehaztu zein lekutan izango diren. Argazkian ikusi daitekeenez toki batzuetan hasi dira jadanik barandilak jartzen.



Barreak, Birrak eta Barreak



Elgoibarko Perkusio Taldea

Elgoibarko Perkusio Taldearen aurkezpen kontzertua izango da gaur, hilak 2, Herriko Antzokian. Inazio Bereziartua Musika Eskolako irakasle Gorka Mujikaren gidaritzapean gaurko ikasleak eta ikasle izandakoak igoko dira taula gainera. Guztira hamasei musikari izango dira eszenatoki gainean. Nabarmentzekoa da, hortaz, Elgoibarko Musika Eskolan perkusioaren alorrean egindako lana eta baita ikasleen erantzuna ere. Izan ere, herri txiki batean bertako musikariez osatutako perkusio talde bat izatea pribilegio bat da gaur egun.

Kontzertuaren helburua perkusioaren mundua ezagutaraztea da, bere baitan dauden instrumentuak erakutsi eta beren erabilpen ezberdinak azaltzea. Egitarauari dagokionez, taldea autore eta estilo ezberdinak batzen saiatu da entzuleari perkusioaren malgutasuna erakusteko asmoz. Gaueko 22:15ean hasiko da kontzertua eta doanekoa izango da.



Parte hartzaileak (Argazkian ez daude taldekide guztiak)

Gorka Errezil, Elur Arrieta, Jon Gurrutxaga, Joanes Rodriguez, Mikel Sastre, Mikel Etxaniz, Jon Zaldua, Ruben Irigoyen, Mikel Arrieta, Eduardo Ibarzabal, Mikel Delgado, Julen Conde, Mikel Zubiaurre, Xabi Azkarate, Jon Xarles Martin eta Gorka Mujika.



Egitaraua

“Cortocircuito”	Lalo Davila
“Peter Gunn”	Henry Mancini
“El hombre y la tierra”	Anton Garcia
“Rock Trap”	W. Schintine
“A la Samba”	Mitchel Peters
“Barcarolle”	Offenbach
“Recuerdos de la Alhambra”	F. Tarrega
“Xilofonia”	Joe Green
“Reggaeia”	T. Brown
“Afro Amero”	Phil Faini

Gorka Mujika

Perkusio irakaslea

“Lehen kontzertua eman aurretik bi lekutatik deitu gaituzte jada”

Gorka Mujikak Donostian burutu zituen perkusio ikasketak eta 18 urte zituenetik Elgoibarko Musika Eskolako perkusio irakaslea da. Ikasle asko pasa dira bere eskuetatik urte hauetan, 30 urte ditu gaur, eta oraingoan Elgoibarko Perkusio Taldearen ardura hartu du ilusioz.

Zenbat perkusio ikasle daude Inazio Bereziartua Musika Eskolan? Momentuan 26 perkusio ikasle ditut, baina hamasei lagunek hartuko dugu parte kontzertuan, egungo ikasleak batzuk eta ikasle izandakoak eta egun irakasleak direnak beste batzuk. Izan ere, bost kide perkusio irakasleak gara (Gorka Mujika, Gorka Regil, Jon Gurrutxaga, Elur Arrieta eta Jon Zaldua), eta Xabi Azkarate ere izateko bidean da. Taldeko gazteenak 10 urte ditu eta 30 urte nagusienak.

Ikasleen zifrak normaltasunaren barruan al daude? Ez, inola ere ez. Normalena pianoa eta beste instrumentu batzuek indar gehiago izatea da. Perkusio ikasketak bukatzera ailegatzea ere meritu handikoa da eta herri txiki batean bost pertsonak, gazteak denak, honetaz bizi nahi izatea zifra altua da. Pentsa, 10 ikasturte izaten direla eta hauek aurrera ateratzeko beharrezko urteak gehiago izaten dira, normalean.

Hortaz, herri perkusio zalea al da Elgoibar? Bai, dudarik gabe. Musika Eskolara hurbiltzen den jendeak perkusioa zer den ikusi du eta gustatu egiten zaio. Lehen perkusioaz berba egiten genuenean, danborra, bonboa eta txapei buruz ari ginen, baina gaur, perkusioaren barruan instrumentu mordoa dauzkagu. Jendea

harritu egiten da: “hau ere perkusioa da? Kongak ere ikasten dira?” eta antzerakoak galdetzen dizkigute. Denek ezagutzen dute bateria, baina xilofonoetan dagoen aukera ikustean, adibidez, txunditu egiten dira. Gainera, Musika Eskolan perkusio instrumentu asko ditugun arren, aukera eta instrumentu gehiago daude hemendik kanpo ere.

“Azken 50 urteetan zabalkunde handia izan du perkusioak”

Zein dira kontzertuan joko dituzuen instrumentuak? Marinba edo xilofono handia izango da instrumentu erregea. Danborren eta bateriaren soinuak ez dira faltako eta beste instrumentu batzuk ere erabiliko ditugu nahi ditugun efektuak sortzeko. Arregloak eskura dauzkagun instrumentuen arabera egin ditugu eta estilo desberdinak ukitzen dituen egitaraua prestatu dugu: rock-a, reggae-a, sanba eta pare bat pieza klasiko.

Modan al dago perkusioa? Bai, baliteke. Gaur ezagutzen dugun perkusioa nahiko modernoa dela esan daiteke. Musika klasikoan esaterako, tinbalak

bakarririk erabiltzen ziren duela 200 urte. Azken 50 urteetan, berriz, zabalkunde handia bizi izan du perkusioak eta indar eta presentzia handitu du. Bateria gauza guztiak jotzeko erabiltzen da eta Marinba eta Bibrafonoa adibidez, beste instrumentu bat gehiago moduan erabiltzen dira jazz-ean. Musika klasikoan duela 25 urte inguru hasi ziren laminak sartzen, hau da, xilofonoak, xilofono handiak, etab.

Zer ezaugarri behar ditu perkusioa ikasi nahi duen pertsona batek? Musikarako orokorrean behar diren berdinak: belarri ona, erritmoa... Dana dala beti daude figura batzuk, futboleko moduan. Danok dakigu futboleko jokatzeko, baina batzuek dohain bereziak dituzte, eta berdin perkusioan. Batzuek txikitatik dituzte esku azkartasuna eta koordinazioa.

Lehen kontzertuaren ostean ba al duzue jarraitzeko asmorik? Oraindik ez dugu kontzerturik eman eta jadanik pare bat lekutatik deitu digute. Hein batean, kontzertu bat emateko beste bat ematera bultzatzen zaitu. Hortaz, eta aukerarik badago, jarraituko dugula uste dut.



Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Elgoibarren Gazteria Politika martxan jartzeko hitzarmena sinatu dute

66.000 euroko aurrekontua du planak eta Udalak %40a finantzatzeko du

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuko kideek eta Marivi Agirregomezkorta Elgoibarko alkateak prentsaurrekoa eskaini zuten joan zen asteazkenean, hilaren 31n, esku artean daukaten proiektu honen berri emateko. Foru Aldundiak Jarduera Planetik eratorritako gastuaren %60a finantzatzeko du, guztira 39.600 euro. Bestalde, Plana gauzatzen den bitartean Gazteria Zerbitzuko Bulego Teknikoaren aholkularitza zerbitzuak Udalaren esku jarriko ditu. Elgoibarko Udalak planaren %40a finantzatzeko du, guztira 26.400 euro.

Aurrekariak

2003ko azaroaren 18an egin zen Elgoibarko Udalaren eta Foru Aldundiko Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuko Gazteria Zerbitzuaren arteko elkarlanaren nondik



norakoak zehazteko lehenengo bilera. Elgoibarko Udalak Gazteria saila martxan jartzeko aholkularitza eta Elgoibarren Gazteria Politika martxan jartzeko laguntza teknikoa eskatu zizkion Foru Aldundiari.

Marivi Agirregomezkortak azaldu zuenez, “bagenekien Elgoibarren zerbitzu

egin behar genuela gai honi irtenbide bat emateko, baina ez genekien nondik hasi, eta Foru Aldunditik laguntza handia jaso dugu, bai ekonomikoa eta baita teknikoa ere”. Azkenik, Gazte Lokala ezinbestekoa dela aipatu zuen, eta Ikastola aurrean egiten ari diren Babes Ofizialeko Etxeen azpiko lokaletan egokituko dutela aipatu zuen.

Asier Mendibe, Maykel Hernandez eta Gorka Bilbao saritu dituzte IMH Sarien II. Edizioan

IMHko ikasleek industria arloan duten erantzukizuna saritzea da helburua

Entresa munduko kideak, Udaleko ordezkariak eta IMHko ikasle eta hainbat irakasle bildu ziren IMH Sarien II. Edizioan. Joan zen asteartean, martxoaren 30ean ospatu zen ekitaldia, eta bertan hiru sari banatu ziren: ikasle ohi aipagarria, 2003-2004 ikasturteko ikasle aipagarria eta fabrikazio arloko ikasle aipagarria. IMH sarien helburua lanbide heziketako ikasketak egin dituzten ikasleei esker ona adieraztea da, eta industria arloan etorkizuna aurrera bultzatzeko beraien lanarekin duten eragina gogoratzea.

Ikasle ohi aipagarriaren saria Asier Mendibe bizkaitarrak jaso zuen. Bolibarko gazte hau Industrias Metala enpresako gerentea da. Bere ikasketak amaitu ostean



Anayak enpresan egin zituen lan praktikak. Bere formazioa hobetzeko asmoz, kalitatearen alorreko gradu ondoko ikasketak burutu zituen, eta Etxe-Tar enpresan egin zituen praktikak. Ondoren, Industrias Metalan hasi zen lanean, eta gaur egun, bertako gerentea da. Asier Mendibek,

duela gutxi hil den bere enpresako gerente ohiari, Julian Zubiaurreri eskaini zion saria.

Aurtengoan salbuespena

IMHk aurtengoan salbuespen bat egin du sariak ematerako orduan. Fabrikazio arloko ikaslea eta aurtengo ikasle aipagarria pertsona bera zirenez, bigarren ikasle aipagarriaren aipamen berezia eskaini zioten. Honela, fabrikazio alorreko ikasle aipagarriaren saria, Goi Mailako Heziketa Zikloa egiten ari den Maykel Hernandez del Cabo eibartarrak jaso zuen. Azkenik, aipamen berezia Gorka Bilbao bermeotarrak jaso zuen. Gorka Italiako enpresa batean ari da lan praktikak egiten, eta bere amak jaso zuen saria.

Gurean Bai Merkataritzak 2003ko Elgoibarko dendetako euskararen diagnostia kaleratu du

"Euskararen egoera Elgoibarko merkataritzan, 2003" izenburupean, Elgoibarko dendetako euskararen egoeraren diagnostia kaleratu dute Gurean Bai Merkataritzako arduradunek. Elgoibarko 135 dendek sinatu zuten hitzarmena 2003an. Hasieran, denda horietan euskarak bizi zuen egoeraren azterketa egin zuten eta ondoren, dendariak konpromiso zehatzak hartu zituzten euskararen aldeko urratsak eman asmoz. Kaleratu berri duten txostenean, 135 denda horietako diagnostia biltzen da, hau da, 2003an denda horien euskarak bizi zuen egoeraren azalpena.

Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak elkarlanean, 2003an ekin zioten



Gurean Bai Merkataritza hitzarmen proiektuari. Hitzarmenaren helburua, Elgoibarko merkataritzan euskara normalizatzea da.

Haizea Emakume Taldekoak Bilbon izan ziren

Joan zen martxoaren 14an, Haizea Emakume Taldekoak Bilbora egin zuten irteera. Argazkian ikusten dugun emakume talde honek, Nerbioi Ibaiaren bazterretik ibilbide gidatua egin zuen goizean. Eguerd

aldean Deustuko Hotel Costa Vascan bazkaldu zuten, eta arratsaldea Bilboko 7 kaleetan pasatu zuten. Eguraldi bikaina egin zuen, eta antolatzaileek esan digutenez, egun oso polita pasatu zuten.



Udan euskara ikasten dutenentzako familia euskaldunak behar dira

HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) sustatu eta diruz laguntzen duen egitasmo honen helburua euskara ikasleei familia euskaldunetan egonaldiak egiteko aukera eskaintzea da, horrela, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izango dute ikasleek.

Familiak 570 euro jasoko ditu hilabete bakoitzeko. Izena emateko epea datorren apirilaren 18an bukatuko da.

Interesatuak Elgoibarko Udaleko Euskara Zerbitzuan (Kultur Etxean), edota 943 74 43 66 / 943 47 44 47 telefonoetara deituz jaso dezakete informazio gehiago. Baita ere www.egonaldiak.net webgunea kontsultatuz.

Saharako haurrak etxean hartzeko kanpaina

Joan zen asteartean, hilaren 30ean amaitu zen Euskadiko Fronte Polisarioak udan haur sahararrak etxean hartzeko martxan jartzen duen kanpaina.

Elgoibarren bi familiek eman dute izena, udan haurrak etxean hartzeko. Saharako umeak uztaila erdialdean etorriko dira Elgoibarrera, eta irailean itzuliko dira beraien herrietara.

II. URTEURRENA

2002ko apirilaren 5ean, 49 urte zituela hil zen **IÑAKI LARIZ IRIONDO**ren oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da igandea, hilak 4, goizeko 12:00etan Mendaroko Garagartzako elizan. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



**Oraindik ere egongo da Aste Santurako planik egin ez duen jenderik...
ZEIN DA ASTE SANTURAKO PLANIK ONENA?**



RUBEN ETXANIZ

38 urte, zabor biltzailea

Aspaldiko partez lau egun ditxut jai, baina erdibitxuta, beraz, ezingo naiz urrutira jun. Nik deskantsau eingo dot, mendira jun... Hemen zihar ibiliko naiz lasai-lasai.

CANDIDO ROMERO

30 urte, kaldereroa

Onena kanpora joatea da. Egund gutxi dira, baina hemendik atera egin behar da. Ezin gara beti berdina egiten aritu. Ni aurten Ciudad Real aldera joango naiz.



MARIIVI ANTON

34 urte, erizain laguntzailea

Deskantsatzea, lagunekin egotea eta eguneroko bizitzarekin deskonektatzea. Kanpora joatea gero eta gutxiago gustatzen zait. Hemen inguruko mendietara joango naiz.

JOSE MARTIN LOPEZ DE LARRAINZAR

38 urte, kale garbitzailea

Normalean ez naiz oportetan kanpora joaten, baina plan on bat Landetara edo Asturias aldera joatea izango litzateke. Lasaitasuna dagoen toki batera joango nintzateke.



MARISOL SUAREZ

29 urte, zaintzailea

Askotan bidaiak eitzen ez da deskantsatzen, beraz, hemen geratuko gera. Egurdixak laguntzen badu, jai egunak turismo pixkat eitxeko aprobetxaiko ditxugu.

GARAZI ANSOLA

11 urte, ikaslea

Lagunekin jolasteko aprobetxaiko dot Aste Santua. Ez naiz kanpora jungo, eta hemen zihar ibiliko gera. Ikastolaka lanak ein eta pixkat ikasteko asmua ere badakat.




Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL

Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel.-Faxa: 943 74 18 91



THE HARTFORD
ASEGURUAK

120 haur inguru bildu ziren Kiribilka programaren lehen saioan

Joan zen martxoaren 26an hasi zen Kiribilka programa. Arratsaldeko 17:30ean bildu ziren denak Plazan, eta aurkezpena egin ostean, programaren kanta eta dantza ikasi zituzten. 120 haur inguru eta beraien gurasoak bildu ziren Plaza Handian, eta eskulanak egin eta jolas desberdinetan parte hartzeko aukera izan zuten. Kiribilka programako liburuxka txiki bat egin

zuten haurrek, saio bakoitzean egingo dituzten gauzak bertan sartzeko asmoz. Eguraldi hotza egin zuen arren, ez zuen euririk egin. Gurasoak, haurrak eta begiraleak ere, hurrengo saioa iristeko gogoz geratu omen ziren. Datozen saioetan gurasoen partehartzea bultzatzen saiatuko dira. Hurrengo saioa gaur, hilak 2, izango da eta ondorengo Aste Santu ostean, hilaren 16an.



Herri Eskolakoak Eskolarteko Jokoen Ibilaldi Neurtuan izan ziren

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, Gipuzkoako Eskolarteko Jokoen Ibilaldi Neurtuan izan ziren, joan zen martxoaren 14an Aretxabaletan. 18 ikasle eta beraien gurasoak izan ziren ibilaldian. Autobusa Morkaiko Mendizale

Elkarteak antolatu zuen, eta beste ikastetxe batzuetako ikasleekin joan ziren. Aretxabaletakoek irteera oso polita antolatu zutela azaldu digute. Inguruko mendi altuenak bistan zituztela, mendi buelta bikaina egin zuten.

Pailazo jaia izan zen larunbatean Plaza Handian

Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak antolatuta, pailazo jaia izan zen joan zen larunbatean, hilaren 27an, Plaza Handian. 2 eta 5 urte bitarteko umeei zuzendutako ekitaldia izan arren, nagusiagoak ere agertu ziren, eta ume mordoak bildu zen Plazan.

Begiraleek 3 txoko desberdinetan banatu zuten Plaza: batean aurpegia margotzen zieten umeei, eta beste bietan tailer desberdinak egiteko aukera izan zuten, besteak beste, kareta eta txupeteak. 11:30etik 13:30era iraun zuen ekitaldiak.



Pilar Ikastetxeakoak Lintzan izan dira

Pilar Ikastetxeako DBH 3. eta 4. mailako ikasleak Lintzan izan ziren martxoaren 12tik 14ra bitartean. Nafarroako Pirinioak bisitatzeaz gain, kirol desberdinak praktikatzeko aukera izan zuten, besteak beste, eskalada eta rapela egin zituzten. Egun gutxi izan ziren arren, oso ondo pasatu zutela kontatu digute, eta eskerrak eman nahi dizkiete txango hau posible egin duten irakasle, begirale eta gurasoei.



Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek II. Soinu Topaketan hartu dute parte

Joan zen martxoaren 28an II. Soinu Topaketa ospatu zen Barañainen (Nafarroa). Gipuzkoa eta Nafarroako 30 musika eskola desberdinetako ikasleek hartu zuten parte. Guztira, 380 partehartzaile izan ziren. Horien artean, Inazio Bereziartua musika eskolako Nagore Diego, Maitane Huidobro, Laura Vegas, Amaia Vegas eta Ainhoa Zapata izan ziren. Topaketa bi zatitan banatu zen: goizean herriko kaleak zeharkatu zituzten. Bazkal ostean, Retegi frontoian kontzertua eskaini zuten, eta bukatzeko, topaketan izan ziren irakasleak saritu zituzten.



MARTXOA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@topagunea.com** helbide elektronikora.

JAIOTAKOAK



Jone Gil Ansola,
martxoak 1,
Xabier eta Koro

Haritz Intxausti
San Martin,
martxoak 21,
Bernardo eta
Maria



Unax Zulaika
Fuente,
martxoak 9,
Unai eta Olatz



Adei Agirrezabala
Hoyo,
martxoak 9,
Angel eta Miren



Iker Beristain
Astigarraga,
martxoak 15,
Sabino eta Sonia



Irati Manzano
Ansola,
martxoak 7,
Joseba eta Amaia

HILDAKOAK

Vicente Lazcano,
76 urte, martxoak 4

Cleta Arriola,
86 urte, martxoak 6

Manuel Mas Portero,
32 urte, martxoak 8

Javier Urzainki Sanz,
67 urte, martxoak 9

Sabin Alberdi,
73 urte, martxoak 11

Josi Maria,
, martxoak 13

Juana Iturricastillo Errasti,
75 urte, martxoak 17

Rufino Ansola,
80 urte, martxoak 20

Pedro Izagirre,
72 urte, martxoak 23

Guillermo Iparragirre Urbieto,
44 urte, martxoak 25

Manuel Alvarez Balzola,
38 urte, martxoak 27

EZKONTZAK

Emilio Fernandez eta Miren Juaristi,
martxoak 13

Alfonso Muñoz eta Ana Liberal,
martxoak 20

Juan Luis Errasti eta Arrate Arrona,
martxoak 13

Alberto Garate eta Idoia Oiarzabal,
martxoak 27

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK · TRASLADOAK · KOROAK



NORBANAKOEI
eta **KONPAINIEI**
zuzenduriko
zerbitzuak.

Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01

BARREn

elkarrizketa

ASTEKARIA



36 URTE DITU ISAAC LOIOLA ELGOIBARTARRAK ETA URTE ASKO DARAMATZA ENPRESA PRIBATUEN ZUZENDARITZAN. GAUR EGUN, BIDELANEKO ZUZENDARI NAGUSIA DA ISAAC, GIPUZKOAKO AUTOPISTEN MANTENUAZ ARDURATZEN DEN ENPRESA PRIBATUARENA, ALEGIA. DONOSTIAKO ESTE UNIBERTSITATEAN LIZENTZIATUA ETA SEGURTASUN TEKNIKARIA DA. BESTALDE, PNVKO ZINEGOTZI IZANDAKOA DUGU. AIPATU DIGUNEZ HURRENGO 2 URTEETAN GIPUZKOAKO A8 AUTOPISTAK ONURA NABARMENAK IZANGO DITU, 54 MILIOI EURO INBERTITUKO BAITIRA 35 URTE DITUEN AUTOPISTA BERRITZEKO. KURBEN PERALTEAK EGOKITZEAZ, ORDAINKETA KABINAK ALDATZEAZ ETA TELEORDAINKETA SISTEMA HOBETZEAZ ARDURATUKO DA BIDELAN URTE HAUETAN, BESTE GAUZA ASKOREN ARTEAN. GAI HAUETAZ GALDETU DIOGU BIDELANEKO ZUZENDARI OROKORRARI.

Isaac Loiola

"ORAIN DELA URTE BATZUK 2 KM T'ERDIKO TUNEL BAT PLAENTXI ETA BERGARA ARTEAN EGINGO ZUTELA ESANGO BALIGUTE, EZ ZELA POSIBLE ESANGO GENUKEEN"

2007RAKO EIBAR-GASTEIZ AUTOPISTAREN GIPUZKOAKO ZATIA BUKATUTA EGONGO DELA IRUDITZEN ZAIO ISAAC LOIOLARI. MOMENTU HORRETAN ELGOIBAR LEKU PRIBILEGIATUA BIHURTUKO DA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZ ORDU ERDIRA IZANGO BAITITU AUTOPISTAZ. HALA ERE, BIDELANEKO ZUZENDARIAK BI IRAKURKETA EGITEN DITU GAI HONEN INGURUAN: DENA ESKURA IZANGO DUGU, BAINA ELGOIBARTIK EDOZEIN LEKUTARA MUGITZEKO PEAJEA ORDAINDU BEHARKO DUGU.

Isaac Loiola

“Estatu mailan Ala e

Enpresa munduan mugitu zaren arren, politikan ere izan duzu zure txokoa, ezta?

Ni betidanik enpresa munduan mugitu izan naiz, egia da 95an zinegotzi izan nintzela baina nire ardura orduan ere politikatik kanpo zegoen, nere etxera iritsi den soldata enpresatik jaso dudalako beti. Politikan beti egongo naiz sartuta, abertzalea naizelako eta alderdi batekin lotuta nagoelako nolabait. Baina garbi dudana da betidanik enpresa munduan mugitu izan naizela eta nire helburua printzipioz behintzat hori jantzea izango da. Ez naiz Bidelanera iritsi politikaren eskutik, nirea ez da kargu publiko bat.

Politikara berriz bueltatzeko intenziorik ba al daukazu?

Erderaz esaten den bezala “nunca digas de este agua no beberé”, ez dakit, niri politika gustatzen zait, oin momentu hontan lan bat daukat, 10 urterako kontratua daukat eta espero dut kontrato hori hor bertan betetzea.

Zein desberdintasun daude Bidelan eta Bidegiren artean?

Bidegi Diputazioko enpresa bat da; elkarte publiko bat, eta gu ordea, enpresa pribatu bat gera. Bidegientzako lan egiten degun enpresa pribatu bat, oso garrantzitsua dan kontrata bat gera dakagun lanagatik, baina azken finean. Diputazioa gure bezeroa besterik ez da. Gurea enpresa pribatu bat da eta jende asko nahasten da horretan. Diputazioak Madriletik transferentzia jaso zuenean, bai Gipuzkoakoak eta bai Bizkaikoak enpresa bana sortu zuten: Bizkaian Interbiak eta Gipuzkoan Bidegi. Gertatzen dena da Bidegi esturktura aldetik oso enpresa txikia dela, 10 lagun izango ditu, eta hauen helburua Gipuzkoako autopistak kudeatzea zenez, lehiaketa publiko bat atera zuten autopistak kudeatzeko enpresa bila. Gipuzkoan 3 enpresa talde aurkeztu ziren, eta garaile gerora Bidelan bezala ezagutzen duguna atera zan. Guk Bidegientzat kobratzen dugu, Bidegiren izenean, fakturak ere guk egiten ditugu baina beraien logorekin, azken finean autopistaren gestio osoa guk egiten dugu baina beraien izenean. Bezero garrantzitsu asko ditugu: Bidegi eta autopistan ibiltzen diren guztiak.

Zertaz arduratzen da Bidelan?

Gure kontratuak esaten duen moduan, gure ardura autopistaren kudeaketa edo esplotazioa da, nolabait Bidegientzat peajea edo ordainsaria kobratzea eta ondoren mantenu orokorra eramatea, azken finean autopista guk eramaten dugu oso-osorik. Guztira, 220 langile daude Bidelanen.

Nola gertatu zen eskualdaketa?

Ekainaren 6an izan zen. 2 konpromiso genituen batez ere: bata, langilegoarekin lotuta, lehenago Europistasentzat Gipuzkoan lan egiten zuten langile guztiak Bidelanen hartu ditugu, horregatik, ekainaren 6ko eskualdaketa honi, autopistako langileak berdinak zirela kontuan izanda, ez zen gehiegi igem zonzonez, nahiko ondo atera zela esan dezakegu. Beste konpromisoa inbertsioak dira, hurrengo 2 urte t erdian 54 milio euro inbertitu behar ditugu autopistetan, diru asko eta asko.

Egia da inbertsio garrantzitsuak Bidegik egingo dituela, eta gu hortan ez gara sartzen, 3. kamila eta guzti horiek guk ez ditugu egin behar, gu autopista modernizatzeaz arduratuko gara.

Eta modernizazio prozesu horrek zer suposatzen du?

Aurtengo urterako pentsatzen dugu 30 milio euro inbertituko ditugula, horetatik 21 milio euro asfaltotan. Adibidez inguru hontan, Elgoibar eta Eibar artean kurben peralteak aldatuko ditugu, nahiko tramu arriskutsua baita. Bestalde, erderaz “capa superficial” deitzen diogun hori aldatuko dugu ere. Irundik mugaraino ere gauza bera egingo degu. Ordainsari edo peaje sistema osoa aldatzeko ere inbertsio garrantzitsua egingo degu, kabinak aldatzen ha-

ere du bezela hartu beharko genu-



“NI MENDIZALEA NAIZ, MENDIA GUSTATZEN ZAIT, DENOK DAUKAGU PAISAIAGATIKO SENTSIBILITATE HORI”

sita gaude, makineri osoa aldatzen ari gera, teleordainketa sistema ere aldatzen joango gara.

Ordaintzeko orduan sistema berdina erabiliko al da?

Bai, sistema ez da aldatzen, bezeroak beti bezela 3 aukera izango ditu: eskuz ordaintzea, targetarekin edo teleordainketa bidez. Azken honetan benikuntza garrantzitsuak datoz, Eurostandar deitzen den sistema berria da. Espainian autopista guztiak sistema berdinarekin ibiltzeko asmoa dago, autopista guztiak konbeniatuko dira eta horiek txartelxo horrekin (TAG), autopista guztitan ibiltzeko aukera emango du.

Ezagutuko al dugu doaneko autopista?

Obra guzti hauek egiteko finantzaketa behar da, honetatik finantzaketa hori aurrera eramateko, gaur egun, ezinezkoa da peaje edo ordainsari hori kentzea. Kontuan izan, 10 urte hauetan autopista hau zeharo aldatuko dela, alde batetik Irundik Eibarera ia-ia 3 kamil izango ditu eta beste aldetik A1-a dago. A1-a guk eramanen dugu momentu hontan. A1-a obra izugarria da eta hori ere ordaindu behar da, honetatik ordainsariak izatea beharrezkoa da. Gainera herri hontan, zorionez edo zoritxanez, paisaia hau daukagu eta geroz eta kotxe eta kamioi gehiago daude, enpresa munduak ere egun batetik bestera gauzak leku batetik bestera mugitzea eskatzen du... eta hometarako autopistak behar dira. Ez badaude egin beharko dira eta egiteko noski, dirua behar da.

Zenbat ibilgailu pasatzen dira eguneroko Gipuzkoako autopistetatik?

Eibartik mugaraino batzabeste 29.000 ibilgailu pasatzen dira. Gero tramoka trafikoa desberdina da, Eibartik Zarautzera 25.000 ibilgailutan egongo da batzabeste hori eta Donostiatik Iruñera 40.000tan.

Estatu eta Europa mailan zein mailatan dago Euskal Herriko autopista?

Gipuzkoan gaur egunean 2 autopista daude, A-8a eta A-1a. A-8a autopista zaharra da, orain dela 35 urte egindakoa eta egia esanda gure aurretik egon zirenek ez zuten gehiegi inbertitu. Orduan guk jaso degun autopista, autopista zaharkitua da eta honetatik inbertitu behar ditugu 54 milioi euro hoiak, autopista eguneratzeko. Baina beste aldean A-1a daukagu, abenduan ireki gendun eta tramo txikia izan arren, 7-8km, autopista hori gaur egunean Larreategiko paso hori kenduta Europa mailan punta-puntian dago.

Zein lurralde da autopistetan gehien inbertitzen duena?

Umutira joan gabe Frantziako eredia hor daukagu, autopistak nahiko onak dira. Egia da baita ere Frantzia berez nahiko laua dela eta horiek gauzak asko erretzen ditu, baina Frantzian dituzten geratzeko guneak eta zainketa orokorrean oso ona da. Alemania eta Suitzian ere autopista txukunak dituzte. Estatu mailan A1a eredu bezela hartu beharko genuke, tramo txiki hortan behintzat, beti ere pentsatuta hemendik aurrera zabalitzen ditugun tramoak kalitate berdinekoak izango direla.

Nola doa Eibar-Gasteiz autopistaren obra?

Izugarriko obra da, ondo pentsatutako obra eta behar beharrezkoa da. Gaur egun 7 kilometrotako tramoan 6.000 ibilgailutik gorra dabiz, eta tramoak ireki ahala trafikoa ere igotzen joango dela suposatzen degu. Kontuan izanda zenbat tunel dituen eta zein luzeeratakoak, autopista hau oso ondo eraikita dago. Larreategiko pasuan gertatu zena pena bat izan zen, Dipuzazioak konponbidea jarri dio eta udazkenerako irekita egongo dela pentsatzen dugu eta ireki ahala autopista txukuna geratuko da. Pena bat da partxe hori erdian izatea.

Elgoibar urte batzuen buruan leku pribilegiatua izango da, Donostia, Bilbo eta Gasteiz ordu erdira izango baitira autopistaz.

Bi irakurketa ditu honek. Alde ona, dena eskura geratzen dela, eta bestea Elgoibartik edozein lekutara mugitzeko peajea ordaindu beharko dela. Honekin zera esan nahi det, Elgoibartik Bergarara joaten denak adibidez 2 aukera dituela, goitik joan 0,70 euro ordainduaz edo behetik joan.

Peajearen jetsierak zein ondorio ekarri ditu?

Lehen genuen ikuspegia dexente aldatu da. Joan zan urtetik hona trafikoa autopistan asko igo da, %8a batzabeste, horiek esan nahi du lehen bazegoela jende bat autopistan ibiltzen ez zena honenbeste ez ordaintzeagatik, orain eretzatzen batzuk jami dira, trafikak eta deskontuak eta hori gizarteak igami du.

Ekologia asko zaintzen al da?

Behin obra bukatu eta gero, konturatzen zera egin den obra handirako inpaktoa nahiko txikia izan dala. Ni mendizalea naiz, mendia gustatzen zait, denok daukagu paisaiagatik sentsibilitate hori. Hantzekoa da obra hori nola egin duten. Orain dela urte batzuk 2 km² erdiko tunel bat egingo zutela esango baziguten Plaentxi eta Bergara artean, posible ez zela esango genuen, baina egina dago.

Noizko ikusiko dugu Eibar-Gasteiz autopista bukatuta?

2007-2008. Gipuzkoarek esaten degu 2007rako egina egongo dela gure tartea, arabarek noiz bat egingo duten da kontua, 45 km inguru badira, arabarek 11 km egin behar dituzte.

tik Zarautzera 25.000 ibilgailutan egongo da batzbesteko hori eta Donostiatik Irunera 40.000tan.

▶ **Estatu eta Europa mailan zein mailatan dago Euskal Herriko autopista?**

Gipuzkoan gaur egunean 2 autopista daude, A-8a eta A-1a. A-8a autopista zaharra da, orain dela 35 urte egindakoa eta egia esanda gure aurretik egon zirenek ez zuten gehiegi inbertitu. Orduan guk jaso degun autopista, autopista zaharkitua da eta horregatik inbertitu behar ditugu 54 milioi euro hoiek, autopista eguneratzeko. Baina beste aldean A-1a daukagu, abenduan ireki gendun eta tramo txikia izan arren, 7-8km, autopista hori gaur egunean Larreategiko paso hori kenduta Europa mailan punta-puntan dago.

▶ **Zein lurralde da autopistetan gehien inbertitzen duena?**

Urrutira joan gabe Frantziako eredia hor daukagu, autopistak nahiko onak dira. Egia da baita ere Frantzia berez nahiko laua dela eta horrek gauzak asko erretzen ditu, baina Frantzia dituzten geratzeko guneak eta zainketa orokorrean oso ona da. Alemania eta Suitzan ere autopista txukunak dituzte. Estatu mailan A1a eredu bezela hartu beharko genuke, tramo txiki hortan behintzat, beti ere pentsatuta hemendik aurrera zabaltzen ditugun tramoak kalitate berdinekoak izango direla.



“JOAN ZAN URTETIK HONA TRAFIKOA AUTOPISTAN ASKO IGO DA, %8a BATAZBESTE”

▶ **Nola doa Eibar-Gasteiz autopistaren obra?**

Izugarrizko obra da, ondo pentsatutako obra eta behar beharrezkoa da. Gaur egun 7 kilometrotako tramoan 6.000 ibilgailutik gora dabiz, eta tramoak ireki ahala trafikoa ere igotzen joango dela suposatzen degu. Kontuan izanda zenbat tunel dituen eta zein luzeeratakoak, autopista hau oso ondo eraikita dago. Larreategiko pasuan gertatu zena pena bat izan zen, Dipuazioak konponbidea jarri dio eta udazkenerako irekita egongo dela pentsatzen dugu eta ireki ahala autopista txukuna gertuko da. Pena bat da partxe hori erdian izatea.

▶ **Elgoibar urte batzuen buruan leku pribilegiatua izango da, Donostia, Bilbo eta Gasteiz ordu erdira izango baitira autopistaz.**

Bi irakurketa ditu honek. Alde ona, dena eskura geratzen dela, eta bestea Elgoibartik edozein lekutara mugitzeko peajea ordaindu beharko dela. Honekin zera esan nahi det, Elgoibartik Bergarara joaten denak adibidez 2 aukera dituela, goitik joan 0,70 euro ordainduaz edo behetik joan.

▶ **Peajearen jetsierak zein ondorio ekarri ditu?**

Lehen genuen ikuspegia dexente aldatu da. Joan zan urtetik hona trafikoa autopistan asko igo da, %8a batzbestek, horrek esan nahi du lehen bazogela jende bat autopistan ibiltzen ez zena horrenbeste ez ordaintzeagatik, orain erretzasun batzuk jarri dira, tarifak eta deskontuak eta hori gizarteak igarri du.

▶ **Ekologia asko zaintzen al da?**

Behin obra bukatu eta gero, konturatzen zera egin den obra handirako inpaktoa nahiko txikia izan dala. Ni mendizalea naiz, mendia gustatzen zait, denok daukagu paisaiagatikiko sentsibilitate hori. Harritzekoa da obra hori nola egin duten. Orain dela urte batzuk 2 km t'erdiko tunel bat egingo zutela esango baziguten Plaentxi eta Bergara artean, posible ez zela esango genuen, baina egina dago.

▶ **Noizko ikusiko dugu Eibar-Gasteiz autopista bukatuta?**

2007-2008. Gipuzkoarrek esaten degu 2007rako egina egongo dela gure tartea, arabarrek noiz bat egingo duten da kontua, 45 km inguru badira, arabarrek 11 km egin behar dituzte.



Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.YA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua	

Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

Farmazia - okindegia

EGUNEZ

GAUEZ

2	Yudego	Yudego
3	Yudego	Zabaleta
4	Zabaleta	Zabaleta
5	Etxeberria	Etxeberria
	(Errosario kalean)	
6	Ibañez	Ibañez
7	Bidasolo	Bidasolo
8	Etxeberria	Etxeberria
	(Errosario kalean)	
9	Etxeberria	Etxeberria
	(Errosario kalean)	
10	Etxeberria	Fernandez
	(Errosario kalean)	
11	Fernandez	Fernandez
12	Fernandez	Fernandez
13	Etxeberria	Etxeberria
	(Errosario kalean)	
14	Ibañez	Ibañez
15	Bidasolo	Bidasolo
16	Etxeberria	Etxeberria
	(Santa Ana kalean)	

FARMAZIAK

IBAÑEZ, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

*eguerdiko 2ak arte

OKINDEGIA

4 domekia	Fotero
8 eguena	Ibarrenea
9 barixakua	Idarraga
11 domekia	Doña Mercedes
12 astelehena	Eizagirre

EuskoTren

DONOSTIA-BILBO

Egunero

Donostia AMARA 5.45 06.45... 20.45

Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02

* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero

Mendaro 07.50 08.50... 21.50

EuskoTren

AUTOBUSAK

BILBO-DONOSTIA

Egunero

Bilbo 06:00 7:00... 20:00

Elgoibar 07.23 08.23... 21.23

* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan

Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan

Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

Maite Olazabal Elgoibar BH Institutuko ikasleak "Emakumeak industriara erakartzen" idazlan lehiaketa irabazi du



Debegesak antolatuta, "Emakumeak industriara erakartzen" idazlan lehiaketa izan da Debabarrenako DBH 3. mailako ikasleentzat, eta Elgoibarko Institutuko Maite Olazabal izan da irabazlea. Lehiaketak bi fase izan ditu: ikastetxe bakoitzak lanik onena aukeratu zuen lehenengo fasean, eta gero, bigarren fasean, eskualdeko lehiaketa izan zen. Debegesak, ikastetxe bakoitzean aukeratutako lanak ere sarituko ditu.

Maite Olazabal mendarorarrak 14 urte ditu, eta lehiaketa desberdinetan parte hartu izan du. Esan digunez, ez zuen espero lehiaketa irabaztea, eta ilusio handia egin dio. Hona hemen bere idazlana.

Emakumeen lanbideak eta gizonezkoen lanbideak: Egia edo gezurra?

“Lanbide guztietan sexua edozein delarik ere, gizakiok gaitasun berdinak omen ditugu. Baina gezurra dirudien arren, XXI. mendean gaude eta oraindik ere, gizonezko eta emakumezkoen lanbideetatik hitz egiten jarraitzen da. Hemen adibide garbi bat; familia batek bere 6 hilabeteko haurra zaintzeko iragarki bat jartzen baldin badu eta lanpostu horretarako hautagaiak gizon bat eta emakume bat badira, ezer jakin aurretik emakumea aukeratuko lukete. Nahiz eta gero, umezain hobea izan gizon hori. Berdin gertatuko litzateke kamioilari izateko lan bila emakume eta gizonezko bat joango balira. Gizona aukeratuko lukete.

Hau dena, gizarteko aurreiritzi eta ohituren ondorioa da.

Argi eta garbi ikusten da gizonezko eta emakumezkoak ezberdinak garela; gaitasun ezberdinak ditugula. Orokorrean, fisikoki gizonezkoak indartsuagoak izaten dira eta emakumezkoak ahulagoak. Baina horrek ez du esan nahi lan berdina egin ezin ditugunik! Batzuei beste batzuei baino gehiago kostako zaie; beste batzuk berriz, abilezia handiagoa erakutsiko dute lan bat burutzerako orduan, baina horregatik ez da egia sexu batek egin ahal duena besteak egin ezin duela! Bizitza honetan saiatuz gero, dena lor daiteke. Eta hori pentsatzen ez duenak, bere prototipo eta estereotipoak aldatzen hasi dadila, bada garaia-eta!

Gaur eguneko datuei begiratzen badiogu berriz, gezurra dirudien arren, ikasketa maila altuagoa izan arren emakumeek langabetuen portzentaje handiena beraiena da. Titulu, master, formakuntza... handiagoak izanda ere, kargu garrantzitsuenetan gizonezkoak besterik ez daude. Ba al dago emakumezkoa den goi

gobernaririk? Edo banku nagusietako zuzendaririk? Edo multinazionalen baten buru den emakumerik? Tamalez, erantzunak oraindik ezezkoa izaten jarraitzen du. Agian egunen batean lortuko dugu galdera horietakoren baten erantzuna emakumezko baten izena izatea, baina horretarako asko aldatu beharko da gizarte madarikatu hau! Zoritxarrez, lan merkatuan matxismoa nagusi baita.

Azken hamarkadetan aldaketa nabarmena izan da, batez ere, emakumea lan munduan murgildu denetik. Hau bereziki hezkuntzagatik izan da. Hezkuntza ere egokitzen joan delako garaian garaikora.

Oraindik lan asko egin behar dugu gizon eta emakumeen artean berdintasuna lortzeko. Horregatik, antzinako pentsaera eta tradizioak alde batera utzi behar ditugu behingoz eta lan munduan denok berdinak garela frogatu!

Niri zortzi bat urte falta zaizkit mundu horretan barneratzeko. Asko direla iruditzen bazait ere, berehala pasako dira eta ea ordurako gauzak gaur egunekoekin alderatuz, hobeto dauden. Nire buruak aldaketak hain denbora gutxian gertatzea oso zaila dela dioen arren, nere bihotzak gauzak hoberantz joango direla sinestarazi nahi dit. Beraz, ea egia den nire bihotzak dioena eta lan iragarkietan ez dugun gehiagotan ikusten emakumea behar da; edo sexua:gizona... Baizik eta, pertsona bat behar dugu lanpostu honetarako.

Poliki-poliki gizarte honetako aurriritziak ezabatu behar ditugu eta guztion artean lan eginez gizon eta emakumezkoak lan alorrean eta beste gauza guztietan maila berean egotea lortzen dugun!”

Leioako musikariek hiru sari lortu zituzten "Elgoibarko Herria" Instrumentu Taldeen III. lehiaketan

Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako 226 musika ikasle izan ziren lehiaketan

Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatuta, "Elgoibarko Herria" Instrumentu Taldeen III. lehiaketa ospatu zen joan zen larunbatean, martxoaren 27an. 34 talde instrumental desberdinek hartu zuten parte lehiaketan. Guztira, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako 17 herri desberdinetatik etorritako 226 musika ikasle izan ziren. Lehiaketa bi zatitan banatu zen: goizean Oinarrizko I. eta II. Mailako musikariak izan ziren protagonistak, eta arratsaldean Maila Ertaineko txanda izan zen. Maila bikaina erakutsi zuten ikasle guztiek, eta musikaz gozatzeko aukera paregabea eskaini zieten musika eskolako auditorioan bildu ziren guztiak.



zen, Txipil Taldea, hain zuzen, baina ez zuen saririk lortu. Epaimahaiaren ustetan, Leioako musikariak izan ziren onenak. 3 sari jaso zituzten, eta originaltasunari dagokion sari berezia ere, beraientzat izan zen. Irun eta Hernaniko taldeek ere, sari bat baino gehiago jaso zuten.

Leioako musikariak nagusi

20 musika eskola desberdinetako ikasleak ziren, eta beraien artean, Elgoibarko talde instrumental bat ere, aritu

IRABAZLEAK

Oinarrizko I. Maila:

1. saria: Lau Soka Quarter (Irun)
2. saria: Inurri (Orereta)
3. saria: Trikittakun (Hernani)

Oinarrizko II. Maila:

1. saria: Intermezzo (Leioa)
2. saria: Jostailu (Irun)
3. saria: Palahuer eta pottokiak (Donostia)

Maila Ertaina:

1. saria: Soinu Atadia (Leioa)
2. saria: Da Capo (Leioa)
3. saria: Gurma (Astigarraga)

Sari bereziak:

- Talde bakoitzeko instrumentu desberdintasuna: Trikittakun (Hernani)
- Originaltasuna: Da Capo (Leioa)
- Konponketarik onena: Tren txiki (Andoain)

Gemma Monreal margolariaren erakusketa Sorian

Gemma Monreal margolari elgoibartarraren 30 lanek osatutako erakusketa izango da ikusgai Soriako Hotel II Virrey aretoan, datorren apirilaren 3tik 11ra bitartean. Duela bi urte izendatu zuten Gemma Monreal areto honetako margolari finko moduan, eta bi urtean behin, erakusketa antolatzen du han.

Bestalde, Gemma Monreak bere estudioa ireki du San Roke auzoan. Bertan, bere koadroen erakusketa ikusi daiteke, eta Gemma bera margotzen ikusteko aukera ere izango da. Interesatuak, koadroak erosteko aukera ere izango dute.



Arima Beltza taldekoak Cadiz eta Lugon izan dira

Arima Beltza talde elgoibartarrak Euskal Herriko mugak zeharkatu ditu, eta Estatuan zehar hainbat kontzertu eskaini ditu. AIE Elkartearen eskutik (Artista, Interprete eta Exekutanteen Elkarte) Euskal Herriko kanpo jotzeko aukera suertatu zitzaizkien, "Artistas en Ruta" proiektuaren barnean. Otsailaren 13tik 15era bitartean Andaluzian izan ziren. Furgoneta bat alokatu, instrumentu guztiak hartu, eta Cadizeraino joan ziren. 3 kontzertu eskaini zituzten bertan, Jerez de La Fronteran, San Fernandon eta Cadizen. Esan digutenez, aretoak bete ez ziren arren, harrera ona izan zuten. Martxoaren 20an, berriz,



Lugon izan ziren. Jazz areto baten eskaini zuten kontzertua eta jende gutxi hurbildu zen arren, disko mordska bat saldu zuten. Orokorrean, esperientzia polita, eta berriz errepikatzeko modukoa izan dela kontatu digute.

Arima Beltzak, Alegian eskainiko du hurrengo kontzertua, datorren apirilaren 23an.

106 lagunek egin zuten Aralarako trabesia elur artean

Hurrengo irteera Garobelen trabesia izango da apirilaren 25ean

Elurra izan zen Morkaiko Mendizale Elkartearen azken irteerako protagonista pasaden martxoaren 28an. Elgoibartar mordoa animatu zen Aralar inguruan trabesia egitera eta bi autobus bete zituzten 106 herritarrek. Goizean goizetik, Amezketako plazan autobusetik irten orduko, egin zien ongi-etorria elurrak. Altuera hartzen joan ahala elurra trinkotzen joan zen eta 1.000 metroak pasa zituztenean paisaia guztiz zuriarekin egin zuten topo. Euskal Herriko gailurrak baino Laponian ohikoagoak diren paisaiak ziruditela



Aralarren ateratako irudi adierazgarria.

aipatu digute. Horren lekuko, fondoko eskiatzaile bat baino gehiago gurutzatu zutela bidean. Haizea eta lainoa izan

zituzten etsai mendizaleek eta aurrez prestatutako ibilbidea moldatu behar izan zutela adierazi digute Morkaiko koto zuzendaritzakoek. Kanbo mendia igotzeko asmoa beste baterako laga zuten eta trabesia Lizarrustin amaitu beharrean Guardetxen amaitu zuten. Elurra eta eguraldia ez ziren oztopo izan, ordea, eta sei ordu pasatxo behar izan zituzten ibilbidea osatzeko. Bestalde,

hurrengo irteera Garobelen trabesia izango da apirilaren 25ean. Barrerillako mendatea, Delika, Txarlazo eta Urduña bitartean izango da ibilaldia.

Kanpotarrak nagusi Elgoibar Herria Txirrindulari lasterketan

AEG Ikastetxea taldeko Sergio de Lis txirrindulariak irabazi zuen Elgoibar Herria Txirrindulari Saria lasterketaren 24. edizioa pasa den asteburuan. 76 lagunek hartu zuten parte Elgoibarko Lagun Taldea Txirrindulari Eskolak antolatzen duen jubencil mailako lasterketan. 73 kilometroko ibilbidea osatu ostean, lehen bi sailkatuak batera ailegatu ziren Santa Klaran kokatuta zegoen helmugara. Sergio de Lis nagusitu zen esprintean eta Oriako taldeko Aitor Olano txirrindularia sailkatu zen bigarren postuan. 40,909ko batez besteko abiaduran osatu zuten ibilbidea. Tarnos talde frantziarreko Julien Beretenot sailkatu zen hirugarren postuan sei segundura. Frantziarrak fin aritu ziren eta hiru txirrindulari sartu zituzten lehen hamar sailkatuen artean.

13 herritarrek hartu zuten parte Azkoitia-Azpeitia Maratoi Erdian

Pasa den zapatu arratsaldean ospatu zen Azkoitia-Azpeitia Maratoi Erdia. Lasterketa honek ez du Behobia-Donostiak izan dezakeen oihartzun eta parte hartzaile kopururik oraindik, baina herriko aintxintxikariek ez zuten hutsik egin eta 13 izan ziren Urola bailarako txoko eder honetan lasterka egin zutenak. Denera 1004 partaide izan ziren irteeran eta Youssuf Songoka keniarrak irabazi zuen lasterketa. Orain artean zegoen denbora (Domingo Castrok egina, 1:01:57) hobetu eta 1:00:56an utzi zuen marka berria. Ibilbidea aldatu izanak izan zuen eraginik marka hobetzeko eta baita korrika egiteko eguraldi aparta egin izanak ere. Elgoibartarrei dagokionez, Xabier Bergaretxe izan zen lehen herritarra 122. postuan (1:19:42). Lehen emakumezkoa Maider Lehr izan zen sailkapen nagusiko 750. postuan (1:42:05). Aipagarria halaber, Iker Mayora mendaroarrak lortu zuen 35. postua. Eskuineko taulan elgoibartarren eta mendaroarren sailkapena.



Sailkapena

Abizenak, Izena	Postua	Denbora
Iker Mayora	35	1:11:16
Xabier Bergaretxe	122	1:19:42
David Conde	149	1:20:45
Javier Puxadena	230	1:23:42
Ion Revert	296	1:26:03
Martin Dominguez	396	1:29:21
Martin L. de Larrainzar	549	1:35:02
Ibai Azkoitia	572	1:35:53
Modesto Cid	655	1:38:50
J. Jose Gurrutxaga	731	1:42:05
Maider Lehr	750	1:42:44
Maria Pilar David	860	1:51:25
Erroka Castrillejo	863	1:51:59

Kadeteek eta nagusiek Udaberri Esku Pilota Sariako finala jokatuko dute apirilaren 4an

Oñatin eta Ikaztegietan jokatuko dira finalak apirilaren 4an

Lagunak Pilota Eskolako pilotariak arrakasta berri bat lortu dute. Hainbat hilabetez Udaberri Saria Txapelketa jokatzen aritu ostean, kadete eta nagusien mailako pilotariak finala jokatuko sailkatu dira. Kadetei dagokienez, Portuga eta Txurrukak osatutako bikoteak Añorgako pilotarien aurka jokatuko du final handia apirilaren 4an, domekan, Oñatiko pilotalekuan. Goizeko 10:30ean hasiko da partida. Bigarren mailako nagusien mailan, berriz, Ulazia eta Loiola iritsi dira finalera. Finalurreko gogor eta orekatua gaintu behar izan dute hauek. Joaneko partidaren 22 eta 10 irabaztea lortu zuten eta bazirudien ez zutela finalera sailkatzeko arazo larregirik izango, baina usteak erdi ustel, askotan gertatu ei den moduan eta dezente sufritu behar izan zuten aurrera egiteko, 22 eta 13 galdu baitzuten finalerdietako bigarren partida Amondarain eta Mujika Murumendi pilota eskolako pilotarien



aurka. Finala domeka honetan, apirilaren 4an, jokatuko da Ikaztegietan, 10:30etik aurrera. Usurbilgo pilotariak izango dituzte aurkari elgoibartarrek finalean. Zortetik onena opa diegu bi bikoteei!

Borja Diez Gipuzkoako txapelketa 2.000 metrotako lasterketan

Mintxeta Atletismo Taldeko Borja Diez Maintxintxikiariak alebin mailako Gipuzkoako Eskolarteko Atletismo Txapelketa irabazi zuen. Borjak 2.000 metrotako lasterketan hartu zuen parte Zumarragako Argixao kirol gunean. Azken metroetan eginiko indar eta azkartasun erakustaldiari esker lortu zuen elgoibartarrak urrezko domina irabaztea. Honez gain, luzera jauzian ere hartu zuen parte eta ozta-ozta izan bazen ere, laugarren postuarekin konformatu behar izan zuen, brontzezko dominatik oso gertu. Lau metro eta 26 zentimetrotako jauzia egin zuen 12 urteko atleta gazteak.

Bestalde, Rakel Avilak 60 metrotako lasterketan hartu zuen parte alebin mailan. Rakelek ezin izan zuen duela gutxi proba



Aitor

konbinatuan lortu zuen Gipuzkoako txapela errepikatu eta bigarren postuan zeharkatu zuen helmugako marra 8 segundu eta 94 ehuneneko denbora eginez.

EMAITZAK

Futbola

Bergara 1 – Haundi 1 (Pref.)
 Elgoibar 1 – Zumaiako 1 (Neskak F-8)
 Elgoibar 4 – Ordizia 1 (Jub.)
 Oiarzun 1 – Elgoibar 1 (Kad.)
 Lagun Onak 2 – Elgoibar 1 (Inf.)
 Elgoibar 9 – Salvatierra 0 (Neskak)
 Irintxa 2 – Elgoibar 0 (1. erreg.)

Esku pilota

Udaberri Saria
 Lagunak A 22 – San Esteban 5 (Kad.)
 Murumendi 22 – Lagunak B 13 (Nag.)
 Mundarro 22 – Lagunak B 9 (Kad.)
 Debarroko Txapelketa
 Euskal Jolas 22 – Lagunak 18 (Jub.)
 Lagunak 21 – Bergara 22 (Jub.)

Areto Futbola

Kenci Elg.9 – Indautxu 7 (Nazional B)
 Lanbroa 6 – Larramendi 4 (1. maila)
 Magefesa 3 – Ribera de Navarra 2 (Jub.)
 Lojantzi 5 – Rotulos Martin 9 (Jub.)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 3
 16:30 Haundi – Tolosa (Pref.)
 18:30 Elgoibar – Eibartarrak (1. erreg.)
 Domekia, 4
 10:30 Elgoibar – Ordizia (Aleb.)
 12:15 Elgoibar – Aretxabaleta (Kad.)
 16:00 Elgoibar – Sporting (Inf.)
 17:45 Elgoibar – Urki (Neskak)

Lana

ESKAERA

- ◆ Emakumea eskaintzen da arratsaldez umeak zaindu, bulegoak garbitu, etxeko lanak edo lorategi lanak egiteko. ☎ **660 51 17 81**
- ◆ Emakumea garbiketa lanak egin, eta umeak zaintzeko prest. ☎ **943 74 22 01/652 71 59 08**
- ◆ Emakumea adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **660 69 53 03**

ESKAINZA

- ◆ Elgoibarko Makina Erremina enpresa ezagun batek esperientziadun "proiektista mekanikoa" behar du. Autonomo edo kontratuarekin. ☎ **605 77 53 57**
- ◆ Emakumea behar da umea ikastolara eraman eta etxeko lanak egiteko. 3 ordu goizez. ☎ **653 71 33 75**
- ◆ Asteburuetarako kamarera behar da. esperientziaduna. ☎ **943 12 12 62**
- ◆ Bulegorako neska behar da. ☎ **902 10 32 87**
- ◆ Salento pizzeriarako kamareroa behar da. ☎ **943 74 01 96**

Partikularrak

- ◆ Batxilergoko bigarren mailako latin klasek jasoko nituzke. ☎ **943 74 45 65/699 70 82 88**

Lokalak

- ◆ 173m² eta 4m. altuerako lokala salgai Santa Klaran. Sukaldedun txokoa eta garaje atea. Erabilpen asko izan ditzake. ☎ **680 112 938**

Salerosketak

- ◆ Peugeot Partner, 1.5 diesela salgai. ☎ **660 55 15 34**
- ◆ Errepiderako Flandes bizikleta salgai. 3 plato, berria. Razesa Mountain Bike, eta porta bizikletasa giltza eta seguruarekin. 1020 euro. ☎ **652 72 76 31**
- ◆ Serieko llantak salgai neumatikoekin. Peugeot 206 GTI autoarenak. Hiru hila-betez bakarrik erabiliak. ☎ **696 89 60 88**
- ◆ Bizikleta zikloestatikoa. Kilometroak, kaloriak... neurtzen ditu. 120 euro. ☎ **943 53 13 67**

Etxebizitzak

- ◆ Apartamentua salgai erdigunean. Eguzkitsua eta zeharo berriua. ☎ **696 74 91 59**
- ◆ Pertsona bat behar da Donostiako Antiguu auzoan pisua konpartitzeko. ☎ **943 31 39 06 (20:00-22:00)**
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**
- ◆ Etxea salgai San roken. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara eta garajea. ☎ **645 73 20 90**
- ◆ Pisua salgai. 3 logela, sukalde-jangela, komuna. Altzariekin. Berritua. Prezio interesgarria ☎ **661 42 60 77**
- ◆ Soraluzen etxea eta garajea salgai. Euren artean konektatuta. ☎ **656 78 07 48**
- ◆ Pisua hartuko genuke alokairuan. ☎ **652 73 73 91**
- ◆ Apartamentua alokatzen da Conilen (Cadiz). Igerilekua eta aparkalekuarekin. ☎ **653 73 34 57**
- ◆ Pisua salgai erdigunean. 80m², berriua, altzariekin, 3 logela, dena kanpora begira. ☎ **655 70 70 33**
- ◆ Apartamentua alokatzen da Conilen (Cadiz). Eraikuntza berria, Bateles hondartzara ondoan. Konpletua. ☎ **680 44 26 68**
- ◆ Apartamentua alokatzen da Saloun. Hondartzako lehen ilaran. Novelty eraikuntza. Konpletua, aire egokitua, igerilekua eta garajea. ☎ **943 81 42 38**
- ◆ Pisua salgai Santa Klaran. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. ☎ **943 53 17 43**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Garajeak

- ◆ Garajea salgai Santa Ana 6an (Ametza parean) ☎ **943 74 05 85/615 70 78 57**
- ◆ Garaje plazak alokatzen ditut Mendaron. ☎ **943 03 36 11**
- ◆ Garajea alokatzen da Bernardo Ezenarro kalean, Eroski azpian. ☎ **943 74 27 24 (arratsaldez)**
- ◆ Santa Ana 2an garajea alokatzen da. ☎ **615 78 78 57**

Bestelakoak

- ◆ Martxoaren 14an lepoko bi kate galdu nituen. Etxeberriatik elizara eta Jubilatuetara bitartean. ☎ **943 74 24 70**
- ◆ Pedro Muguruza kalean, perikito bat agertu zaigu balkoian. Horia eta berdea. ☎ **943 74 39 73**
- ◆ Caritasek butanozko berogailua hartuko luke. ☎ **943 74 15 09**
- ◆ Kartera galdu nuen astelehenean, hilaren 22an, San Bartolome kalean, Pol-Pol eta Eroski bidaiak artean. ☎ **943 74 18 76**
- ◆ Euskal Artzai txakurkumea oparitzen da. Aita euskal artzai txakurra eta ama perrigalga eta artzai alemaniarra. ☎ **678 300 411**

Agurrak



♦ Zorionak **Julen!** Zure ikastolako laguntxoaren partez, espero dugu jarrai dezazula orain bezain alaitu eta irribarretsu. Muxu bat.



♦ Zorionak **Juleni** joan zen astelehenean 6 urte bete zituelako. Belarriak handituko zaizkizu hainbeste belarri tirakadarekin. Muxu asko eta zorionak familiakoaren partez.



♦ Zorionak **Felix Urizarri**, apirilaren 1ean, 33 urte bete zituelako. Familiakoaren eta bereziki, Nerearen partez.



♦ Zorionak **Igor Iriondori**, apirilaren 5ean, 3 urte beteko dituelako. Esther eta Gorkaren partez.



♦ Zorionak **Judith**, hilaren 4an, 3 urte beteko dituzulako. Gurasoen partez.



♦ Zorion bero-beroak gure etxeko larrosak zaretan **Ane** eta **Iratiri**, zuen 3. eta 2. urtebetetze egunetan. Familiakoaren eta bereziki, Idurre, Mirren, Eneko eta Peioren partez.



♦ Zorionak **bikote**, martxoaren 13an eta apirilaren 1ean zuen urtebetetze eguna izan zelako. Familiakoaren partez.



♦ Zorionak **Ainhoa** eta **amama Begoñari**, datorren apirilaren 7an zuen urtebetetze eguna delako. Guztien partez.



♦ Kandelak itzaltzeko prest? Mila kilo zorion eta ehundaka muxu goxo bioi, guztien partez.



♦ Zorionak **Adriana** eta **Pedro Berazari**, hilaren 25ean, urte bat egin zenutelako. Muxu asko zuen anaia Alejandro eta familiakoaren partez.

BEKAK

Ikertzaileen prestakuntza

Eusko Jaurlaritzak ikertzaileen prestakuntzarako 2004ko bekak antolatu ditu doktoretza-tesia burutu nahi duten unibertsitateko goi-mailako tituludunei ikerketa zientifiko, teknologiko eta humanistikoaren arloko oinarritzko prestakuntza eskaintzeko asmoz. Doktoretza-tesia hirugarren zikloko ikasketen barruan gauzatu beharko da, ezagutza zientifiko, teknologiko eta humanistikoaren edozein alorretan. Epea: apirilak 22

Internazionalizazio bekak

Eusko Jaurlaritzak gazteak kanpoko merkataritzan eta internazionalizazioan prestatzea helburu duten bekak antolatu ditu, horrela euskal enpresek, kanpoko merkatuetan beren hedapen-lanekin jarraitzeko, beharrezko duten langileen trebakuntza egokia ahalbidetuz. Bi motatako bekak: 30 prestakuntza-beka kanpoko merkataritzarako eta 30 beka internazionalizatutako enpresetan eta internazionalizazioa sustatzeko bestelako erakundeetan praktikak egiteko. Epea: apirilak 20

JARDUERAK

Gazte kooperanteak

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko gazteria lankide 2004 programa antolatu du. 20 eta 31 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Ekimen honen xedea Euskadiko gazteriarri garapenerako lankidetzaren arloko ekintzez jabetzen laguntzea da. Informazio guztia www.gazteukera.net helbidean aurkitu daiteke, "Aisialdia eta kulturaren" klik eginez. Epea: apirilak 25

Auzolandegiak

Eusko Jaurlaritzak 2004ko auzolandegiak antolatu ditu. Auzolandegi hauek gai ezberdinen ingurukoak izango dira eta Euskal Herrian, Estatuan eta atzerrian burutuko dira. Informazio guztia www.gazteukera.net helbidean aurkitu daiteke, "Aisialdia eta kulturaren" klik eginez. Aurreinskripzioak egiteko epea: apirilak 3

Udalekuak

Gipuzkoako Foru aldundiak aurtengo oporraldirako 'UDALEKUAK 2004' antolatu ditu 7tik 13 urterako bitarteko gazteei zuzenduta. Txandak 7 edo 10 egunekoak dira eta ingelesezko ikastaroak ere badira. Zozketarako izen-ematea: martxoaren 22tik apirilaren 2ra. Izen-ematea internet bidez egiteko aukera badago www.gipuzkoa.net/oporraldi helbidean. Informazio gehiago 943 445980 telefonoan.

LEHIAKETAK

Ipuinak

Ordiziako Emakumeen Kimetz Gizarte eta Kultura Elkarteak X. Kimetz ipuin lehiaketa antolatu du. Bertara 5 eta 10 orri bitarteko luzerako gai libreko lanak aurkez daitezke euskaraz nahiz gaztelaniaz. 600 euroko saria hizkuntza bakoitzeko onenari eta 150 euroko akzesita emakume batek idatzitako ipuin onenari. Epea: apirilak 15

LANA

Astaldiko begiraleak

Irungo Irun Iruten Aisialdi Taldeak uztailen antolatuko duen Solas Jolas 2004 programarako begiraleak kontratatu nahi ditu. Epea: apirilak 19

2 BARIXAKUA

17:30 "KIRIBILKA PROGRAMA"

Norentzat: 3-8 urteko haurrak eta hauen gurasoak

Plaza Handian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea

22:15 ELGOIBAR PERKUSIO

TALDEAREN AURKEZPEN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

Antolatzailea: Inazio Bereziartua Musika Eskola

3 ZAPATUA

16:00 AUTODETERMINAZIOAREN

ALDEKO MANIFESTAZIOARA

BILBORA JOATEKO AUTOBUSA

Irteera: Plaza Handitik

4 DOMEKIA

10:15 UDAL MUSIKA BANDAREN

KALEJIRA

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN

KONTZERTUA

Herriko Antzokian

18:30 PARROKIKO

ABESBATZAREN ASTE SANTUKO

KONTZERTUA

Zuzendaria: Ander Simal

San Bartolome Parrokian

16 BARIXAKUA

17:30 "KIRIBILKA PROGRAMA"

Norentzat: 3-8 urteko haurrak eta hauen gurasoak

Plaza Handian

19:00 "EMAKUMEEN EGOERA MUNDUAN ZEHAR"

ERAKUSKETAREN

INAUGURAZIOA

Egilea: Nazioarteko Amnistia

Kultur Etxeko erakusketa gelan

Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

Apirilaren 28ra arte

ASTE SANTUKO MEZAK eta ELIZKIZUNAK

	Hilak 4 Erramogandea	Hilak 5 Astelehena	Hilak 6 Asteartea	Hilak 7 Asteazkena	Hilak 8 Ostegun Santua	Hilak 9 Ostiral Santua	Hilak 10 Larunbata	Hilak 11 Pazko Igandea
PARROKIAN	11:00 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza 12:30 Meza	16:30/20:00 Penitentzia ospakizunak (Euskaraz)	16:30/20:00 Penitentzia ospakizunak (Gaztelaniaz)		10:00/12:00 Banakako penitentzia 19:00 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza	18:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna	21:00 Bazko Bijilia	10:30 Meza nagusia eta prozesioa 12:30 Meza eta bataioak
SANTA KLARAN	9:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza				17:30 Azken afariko ospakizuna 21:30 Jaunaren aurreko otoitza	9:00 Irakurgaien ordua 11:30 Gurutz bidea 16:30 Jesusen heriotzaren ospakizuna	22:00 Bazko Bijilia	9:30 Meza
MADALAN	8:30/12:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza		20:00 Penitentzia ospakizunak (Euskeraz)	20:00 Penitentzia ospakizunak (Gaztelaniaz)	19:30 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza	10:00 Gurutz bidea 17:30 Jesusen heriotzaren ospakizuna	20:30 Bazko Bijilia	8:30/12:30 Mezak
SAN LORENTZON		20:00 Penitentziak 21:00 Penitentziak (San Antolin)			18:00 Azken afariko ospakizuna	19:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna		

KONTZERTUAK

Parrokiko Abesbatzaren kontzertua

Parrokiko Abesbatzak Aste Santuko kontzertua eskainiko du domeka honetan, apirilaren 4an, San Bartolome Parrokian. Ander Simal eibartarraren zuzendaritzapean dozena bat pieza eskainiko dituzte. Besteak beste, "Laudate nomen domini", "Popule meus", "If you love me", "O magnum misterium", "Regina Coeli", "Ave Maria" eta "Aita Gurea". Saioa 18:30ean hasiko da.

Udal Musika Banda

Udal Musika Bandak kalejira eta kontzertua eskainiko ditu apirilaren 4an, domekan. Goizeko 10:15ean aterako dira kalejiran herriko kaleetan zehar. Ondoren, 12:30ean kontzertua izango da Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honako pieza hauek eskainiko dituzte: "El Motete" (J. Serrano), "Finlandia" (J. Sibelius), "Blue Tango" (L. Anderson), "El Caserio" (J. Guridi) eta "Las playas de Rio" (Kees Vlak).

MANIFESTALDIAK

Autodeterminazioaren alde

Euskal Herria Aitortu eta Errespetatu taldeak antolatuta, Autodeterminazioaren aldeko manifestaldia izango da Bilbon zapatu honetan. Elgoibartik autobusa aterako da joan nahi dutenentzat. Arratsaldeko 16:00etan izango da irteera ordua Plaza Handian. Izena ohiko tokietan eman daiteke.

IKASTAROAK

Moztu eta josi modu erresean

Haizea Emakume Taldeak moztu eta josi modu erresean izeneko ikastaroa eskainiko du apirilaren 20tik ekainaren 17ra bitartean. Astearteetan eta ostegunetan izango dira klaseak 15:00etatik 16:30era. Hortaz, 26 ordu izango dira guztira. Izaskun Estibaritz izango da irakaslea eta gehienez 15 lagun onartuko dira. Besteak beste, arropa birziklatzen, neurriak hartzen, norbere arropak konpontzen, koloreak nola uztartu, nola baliatu moda aldizkarietako ideiez, etab, izango da irakatsiko dena. Haizeako bazkideek 35 euro ordaindu beharko dute ikastaroan parte hartzeko eta 40 euro bazkide ez direnek. Izena emateko edota informazio gehiago nahi izanez gero, Pitxintxura joan.

Igeriketa ikastaroak

Elgoibarko Udal Kirol patronatuak igeriketa ikastaroak antolatu ditu Olaizaga Kirolegian. Ikastaroak haur eta helduei zuzenduta daude eta apirilaren 19an emango zaie hasiera. Ikastaroetan parte hartzeko Olaizaga kiroldegian eman behar da izena apirilaren 1etik 7ra.

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"21 gramos"

3, zapatua: 19:30-22:15

4, domekia: 19:30-22:15

5, astelehena: 22:15

"Prop & Berta"

4, domekia: 16:30

"Una de Zombis"

8, eguena: 19:30-22:15

9, barixakua: 19:30-22:15

"Bajo el sol de la Toscana"

10, zapatua: 19:30-22:15

11, domekia: 19:30-22:15

12, astelehena: 19:30-22:15

"Cuando menos te lo esperas"

16, barixakua: 22:15

EIBAR, Unzaga

"Peter Pan"

2, barixakua: 19:30

3, zapatua: 17:00-19:30

4, domekia: 17:00-19:30

5, astelehena: 19:30

6, martitzena: 19:30

7, eguaztena: 19:30

EIBAR, Rialto

"Cold Mountain"

2, barixakua: 19:30-22:15

3, zapatua: 17:00-19:30-22:15

4, domekia: 17:00-19:30-22:15

5, astelehena: 19:30-22:15

6, martitzena: 19:30

7, eguaztena: 19:30

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien

aldaketen erantzukizunik.



"21 gramos"

Zuzendaria: Alejandro Gonzalez Iñárritu.

Antzezleak: Sean Penn, Benicio del Toro, Naomi Watts.

Heriotzari beldur izan edo ez, beti ailegatzeko da herio, eta diotenez azken une horretan 21 gramo galtzen ditu gorputzak. Gizakiaren arimaren pisua ote da? Ala bizirauten dutenek beregain hartu beharko duten pisua? Filma honek hiru pertsonaren bizimodu traketsak jarraituko ditu hilabete batzuetan. Halaberraren poderioz istripu batean ezagutuko dute elkar eta euren bizitzak eta patuak elkar gurutzatuko dira.

ZINEA



A

ste honetako erretratu zaharra **Jose Inazio Garagartza** erlojugileak laga digu. 1915. urteko argazkia da. Garai hartan, San Migel auzoan jatetxe famatu bat zegoen, “San Migeleko benta” izenez ezagutzen zena, eta hantxe kanpoan aterata dago argazki hau. Bezero asko zituen jatetxe honek, herritarrak, eta kanpotarrak ere mordoia etortzen ziren. Argazki historikoa da hau elgoibartarrentzat.

Argazkian ageri direnak jatetxeko langileak dira, bertan ikusten ditugun haurra eta apaiza kenduta. Aspaldiko argazkia denez, eta gainera bertan agertzen diren asko kanpotarrak direnez, ezinezkoa izan zaigu izen guztiak jartzea. Beraz, ezagutzen ditugunen izenak emango dizkizuegu:

Goiko ilaran, ezkerretik hasita laugarren emakumea **Maria Olasolo** (†) da, eta bere azpian dagoen gizona, bere senarra, **Agustin Garagartza** (†), bere semea **Jose Garagartza** (†) besotan duela. Senar-emazte hauek ziren jatetxearen jabeak. Argazkian ikusten dugun apaiza **Don Justo Arenas** (†) bizkaitarra da.



ESKERTZA

2004ko martxoaren 27an, 38 urte zituela hil zen,
MANU ALVAREZ BALZOLAren emaztea,
semeak, gurasoak, anai-arrebak eta gainerako sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



BASKO RENT

GARBIKETA • MANTENIMENDUA • AUTOEN ALOKAIKUA
MANTENDU EZAZU ZURE AUTO GARBI eta PREST!





ESKAITZA BEREZIA:

PNEUMATIKOAK 4 X 3 - 3 ORDAINDU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU

GARBIKETA
AUTOMATIKO
PUBLIKOA



ESKUZ EGINIKO
GARBIKETA



HORREZ GAIN:

Olioaren edo filtroen aldaketa
Pneumatikoen azterketa eta aldaketa
Balazten eta esekiduraren azterketa
Mantenimendu orokorra

SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE

7 eta 8 pabilioiak - Elgoibar

☎ 902 103 287



Firestone

GOODYEAR

GREMIOEN GIDA

AROSZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

ETXEKIT

Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

IRAOLA

Arotz lanak
Arno bide, 7 (MENDARO)
☎ 636 49 74 85

LODOSO

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
☎ 943 74 03 96

ITURGINTZA, GASA, KALEFAKZIOA ETA KLIMATIZAZIOA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 943 74 17 61
☎ 689 04 92 06

ONGI

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioia
☎ 943 74 28 80

PAGOAGA

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 943 74 07 89
☎ 608 14 30 40

PINTURAK

BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 11 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

JOSEBA

Pedro Muguruza, 29
☎ 943 74 09 02
☎ 659 93 49 64

URZELAI

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

ASKETA

Osio, 7 DEBA
☎ 629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 29 87
☎ 679 19 77 47

E. ARANDIA

Urasandi, 17
☎ 605 70 52 04

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Isolamenduak
Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94